Ana ballet eskolak jasotzera urte osoan zehar joaten da, uztaila eta abuztua izan ezik, oporrak baititu. Asko saiatzen bada ere pausoak ez zaizkio oso ondo ateratzen; eta, neska ilehori ipurterre batek belarrira esaten dio beti: “begira zein dantzarina ona”. Anak musin egiten dio eta beste alde batera joaten da.

1.Zenbat hilabetetan joaten da Ana ballet eskolak hartzera?

a) Bost
b) Zazpi
c) Hamar
d) Hamaika
e) Hamabi

2.Zergatik egiten dio Anak musin beste neskatoari?

a) Ilehoria delako
b) Itsusia delako
c) Bere laguna ez delako
d) Esaten diona gustatzen ez zaiolako
e) Ondo dantzatzen duela esaten diolako

3.Zer esan nahi du belarrira hitz egin?

a) Oso baxu hitz egitea
b) Oso altu hitz egitea
c) Jende aurrean hitz egitea
d) Gaizki hitz egitea
e) Belarrira abestea.

4.Uste al duzu Ana dantzari ona dela?

a) Bai, kurtso osoan dantzatzera joaten delako.
b) Bai, asko gustatzen zaiolako.
c) Bai, dantzari bikaina delako.
d) Ez, ez delako asko saiatzen.
e) Ez, ez zaiolako guztiz ondo ateratzen.

LIVEWORKSHEETS